

2. SAIOA

KULTURAREN BEHATOKIEN ANTOLAKETA

Lurdes Aranguren

Aintzane Larrabeiti


Sarrera

Saio honetan, behatokiaren antolaketa-ereduak eta lan- eta kudeaketa-metodologiak definitzeari buruz eztabaidatu nahi dugu. Kulturaren Euskal Behatokiaren kasutik abiatuta, beste ikuspegi, eredu eta emaitza batzuk partekatu eta ezagutu nahi ditugu, alderdi positiboen eta zailtasunen azterketa kritikoa egiteko.

1. Behatokiaren barne-antolaketa

a) Antolaketa-eredua

Kulturari eta kultura-sektoreei buruzko informazio erregularra eta egituratua izateko beharra ikusirik, Kulturaren Euskal Planaren egiturazko hiru organoetako bat izateko helburuarekin sortu zen Kulturaren Euskal Behatokia.



Lehenengo fasean (2006-2008), Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren esku egongo da Behatokiaren kudeaketa. Organo horrek behatoki-arduradunaren lanpostua sortu du horretarako. Behatokiak lehiaketa publiko bidez kontratatutako kanpoko enpresa baten (ABEE) laguntza teknikoa ere izango du.

Bestalde, Behatokiaren **segimendu-batzordean** parte hartzen dute, batetik, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak (hiru foru-aldundiak, hiru hiriburuetakoko udalak eta EUDEL, EAeko udalerrien ordezkari gisa) eta, bestetik, sektoreetako ordezkariak.

b) Barne-kudeaketa

Barne-antolaketari dagokionez, pertsona bat arduratzen da Eusko Jaurlaritzaren eta kontratatutako enpresako lan-taldearen arteko koordinazioaz. Hala, proiektuei segimendua egiteko eta kontrolatzeko, astero bilerak egiten dira Behatokiko arduradunaren eta ABEEko koordinatzailearen artean, sortzen diren eskaerei erantzuteko. Sarean lan egiteko, intraneta erabiltzen da.

Bestalde, hileroko lanaldi irekiak egiten dira ABEEko lantaldearen eta Eusko Jaurlaritzako arduradunaren artean. Lanaldi horietan hartzen dira erabaki estrategikoak eta zehazten dira proiektuen plangintzetako puntu garrantzitsuenak.

Edozein proiektuk kudeaketa eraginkorra behar du noranzko egokira iristeko; bada, Behatokiaren kasuan, are beharrezkoagozat hartzen da hori. Askotariko taldeen, instituzioen, proiektuen eta solaskideen konbinazioak kudeaketa arina behar du, aurrerapenak ikusten, akatsetatik ikasten eta etorkizunera ikuspegi egokitik begiratzen laguntzeko. Behatokiaren kudeaketari dagokionez, urteroko memoriak eta jardueraren planak adierazten dute zer bide hartu.

2. Ikerketa-helburu komunak dituzten administrazio eta erakundeekin harremanak

Esan bezala, antolaketa-eredua parte-hartzailea da, eta batzordeen bidez koordinatzen da (erakundeen artekoa eta segimendukoa). Eredu horren bidez, administrazio, erakunde eta unibertsitatearen arteko lotura estua bultzatzen da. Hala, harreman formaletik haratago, kudeaketan integratuta daude erakunde horiek.

Kultura Saileko organo estatistikoa arduratzen da Behatokiaren eta Euskal Estatistika Erakundearen arteko harremanaz. Organo horrek lotura gisa jarduten du eragiketa estatistiko ofizialen kudeaketan.

Bestalde, Gazteriaren Euskal Behatokiarekin ere harreman estuak ditu Behatokiak, proiektuek eskatzen dutenean, sinergiak sortzeko.

Horrez gain, sektoreetako eragile eta elkarte nagusiekin harremanak izateko eredu bat garatzen ari dira, eta Behatokiko informatzaile nagusi gisa finkatuko dituzten hitzarmenak zehazten.

Azkenik, lan-saio hauek egiteak ere erakusten du harremanetarako asmo hori, ibilbide luzeko behatokiekin esperientziak partekatzea baitute helburu. Saio hauetan egindako hausnarketa eta eztabaidekin, lehenengo pausoa emango da parte-hartzaileen artean harreman gero eta sendoagoak sortzeko.

3. Funtzionamendua

Behatokiaren asmo handiko eredu integrala abiapuntu hartuta, 1. saioan azaldu den bezala, erronka nagusia gure Programa Estatistikoa sortzea da, lehenengo ekitaldian garatutako lan kontzeptualaren egitura-oinarririk abiatuta. Estatistika deskribatzailea sortzen ari gara, eta, horri esker, azterketan eta ikerketan murgildu ahal izango da Behatokia. Informazioa pixkanaka jasotzeko sistema fidagarri eta baliogarri bat izatea ezinbestekoa da euskal kulturaren errealitatea ezagutzeko, eta, hartara, haren onspena lortu eta, azkenik, arlo honetan erreferente bihurtzeko.

4. Komunikazioak eta harremanak

Erakundeekiko eta sektoreekiko komunikazio- eta harreman-politikak ematen dio zentzua Behatokiari; aurrerapenak kalera aterako ditu eta harreman-sarea osatuko du, eragileak han barneratzeko. Beraz, bi ikuspuntu hauek konbinatzen dira:

- lortutako prozesuak eta emaitzak erabiltzaileei komunikatzea eta zabaltzea. Behatokiaren produktuak hedatzeko leku etengabea da weba: txostenak, buletin digitalak, estatistikak...
- parte hartzeko eta hausnarketarako esparrua osatzea hainbat instituziorekin eta kultura-eragilerekin, baita Kulturaren Euskal Planeko lantaldeekin ere. Hauxe du zeregin nagusia: informazioa eta jakintza ematea; Behatokiaren esparruan emandako aurrerapauso eta emaitzak baliozkotzea; sektoreko ildoen eta aurrerapenen erreferente iraunkor bihurtzea (kulturako I+G+B)

5. Laguntza teknologikoa

Behatokiaren kanpoko eta barruko gaitasun informatibo eta erlazionala optimizatzen dituen esparru integratu batean deskribatutako elementuak lotzen ditu laguntza teknologikoak. Une hauetan, erronka nagusietako bat irtenbide informatiko aurreratuak edukitzea da, bai lantaldeak eta eragileekiko konektibitatea kudeatzeko, bai informazioa jaso, bildu, kudeatu eta hedatzeko ere.

Orain arte, Behatoki taldearentzako **intraneta** eta sektore-taldeekin eta kudeaketa-erakundeekin lanean aritzeko **extraneta** sortzen ahalegindu gara, bai eta informazioa kudeatzeko ereduaren lerro nagusiak honako bi norabide hauetan ezartzen ere:

- Informazioaren barreadura eta sozializazioaren konponbideak, bilaketa ahalbidetzen duten funtzionaltasunaren bidezko datuen aurkezpena, pertsonalizatutako taulak, dimentsioen eta klasifikazioen aukerak, irudikapen grafikoak eta mapatzeak...
- Informazioa behetik gora batzea ahalbidetzen duten tresnak sortzea, ekoizpen-sare kulturaleko datuak biltzea eta kudeatzea. Kultura-eragileen komunitateko direktorioak eta informazio estatistikoari dagokion informazio kantitate jakin bat denbora errealean kudeatzea ahalbidetzen duen sistema.

Hautatutako aukerek eta lan-irizpide irekiek lehenetsi egin dituzte potentzia eta malgutasun informatikoa, bai eta datuen, metodologiaren eta tratamendu-prozesuen bateragarritasun-bermea eta –transferentzia ere, hurbileko ingurunearekiko ikuspegi koherente batetik –EUSTAT; INE– eta EBko eragile estatistikoen sareari irekita .

Eztabaidarako zenbait gai

1. Nola uztartu partaidetza eta koordinazioa eraginkortasunarekin; nola uztartu antolakuntza-eredu berri eta konplexua erabakien eta kudeaketaren arintasunarekin
2. Estatistika-organoekiko harreman- eta lotura-eredua
3. Informazio-sorkuntzatik jakintza-sorkuntzara; estatistikak versus analisiak
4. Nola eman proiektua sendotzeko lehen urratsak, eta emaitzen premia
5. Zer komunikazio-estrategia hautatzen diren Behatokia gizaratean ikusteko
6. Teknologia aplikatzea Behatokiaren gaitasun informatibo, erlazional eta operatiboaren optimizazioan